

7. EKIMEN AZPIMARRAGARRIAK

MUGIKORTASUNA

Neurria

Dbus eta Euskotrenekin eginiko hitzarmenei esker, lasterkariek aukera dute 1 € ordainduta lasterketa egunean irteerara heltzeko. Informazioa emateko bereziki sortutako aplikazio bat erabili dezakete horretarako.

Ekimen hau eta beste batzuk erakunde antolatzaileak duela urte batzuk egin zuen mugikortasun plan batetik datoz. Helburua da mugikortasun aukerak hobetu eta ibilgailu pribatuen erabilera murriztea.

Kalkuluen arabera, azken urteetan, %7-10 murriztu da ibilgailu pribatuen erabilera.

Lasterketa egunean, lehen ordutik eguerdiko 13:00ak arte —jende guztiarentzat— eta 15:00ak arte —lasterkari eta boluntarioentzat— Dbus autobusa doakoa da, autobus konpainiarekin eginiko hitzarmenari esker. Erakunde antolatzaileak bere gain hartzen du ekimen honetatik eratorritako kostua.

Zinemaldiak eta Mugikortasun Departamentuak mugikortasun jasagarria sustatzea hitzartu dute, eta bizikletaren erabilera sustatzea pertsona ospetsu baten bitartez. Bereziki egiten da Zinemaldia bat datorrenean denboran mugikortasun astearekin.

Ekitaldiak gauez egiten direnean hirigunetik kanpo, Dbus-ekin eginiko hitzarmenaren bidez, doako zerbitzu bereziak antolatzen dira ekitaldia egingo den lekura iristeko, edo autobusak alokatzen dira garraio enpresa baten bitartez.

GFArekin lankidetzan, garraio moduak ipintzen dira hirigunetik kanpo egiten diren ekitaldietarako. Adibidez, Arantzazun egin zen kontzertu baterako, autobus bat antolatu zen, jendeak ibilgailu pribatua erabili ez zezan.

Ekitaldia

Behobia-Donostia Oinezko Lasterketa

Donostiako Maratoia

Donostia Zinemaldia

Olatu Talka

Musika Hamabostaldia

Erakundea

FORTUNA KIROL ELKARTEA

Fly Group 99 SL

Donostiako Zinemaldia

Donostia Kultura

Donostiako Musika Hamabostaldia SA



Hugh Jackman bizikletan (Donostia, 2013)

7. EKIMEN AZPIMARRAGARRIAK

HONDAKINAK

Neurria	Ekitaldia	Erakundea
<p>Birziklapenerako baliabideak jartzen dira irteeran, hornidura puntuetan eta helmugan. Irteeran, gainera, kirol arropa kantitate handi bat biltzeko bitartekoak jartzen dira, lasterkariak ohitura baitute kirol jantzi zaharrak eraman eta irten aurretik botatzeko. Bildutako arropa kantitatea eguraldiaren arabera izaten da.</p> <p>Duela urte batzuetatik hona, saioak egiten ari dira edalontziak erabiltzeko ur botilen ordez. Hornidura puntu batzuetan edalontziak erabiltzen dira jada, eta aztertzen ari da ere edalontzi horiek konpostagarriak izatea.</p>	<p>Behobia-Donostia Oinezko Lasterketa</p> <p>Behobia-Donostia Oinezko Lasterketa</p>	<p>FORTUNA KIROL ELKARTEA</p> <p>FORTUNA KIROL ELKARTEA</p>
<p>Kontrolak ipintzen dira sarrera puntuetan, beirak eta latak erretiratu eta haien ordez edalontziak banatzeko. Erakunde babesleak (Heineken), Jazzaldirako eskusiboki, beirazkoak diruditen botila bereziak egiten ditu, hondartzan beira hautsirik gelditu ez dadin.</p> <p>Hondartzako agertoki berdeko pantailan, birziklapenaren aldeko mezua zabaltzen dira. Kursoaleko terrazetan, hondakinak gaika biltzeko edukiontzia ipintzen dira, eta edukiontzia zer neurritaraino beteta dauden begiratzeaz arduratzen den lantalde bat dago.</p> <p>Irteeran, ahal den neurrian, ontziratu gabeko fruta eta jakiak banatzen dira, hondakin gutxiago sortzeko.</p>	<p>Heineken Jazzaldia</p> <p>IX. ENPESEN LASTERKETA</p>	<p>Donostia Kultura</p> <p>Donosti Eventos SL</p>
<p>Azken urteetan, antolatzaileak harremanetan jarri dira Hernaniko SOS ARRAZAKERIA elkartearekin, erabiltzen ez diren jakiak banatu eta alferrik ez galtzeko.</p>	<p>Donostiako Maratoia 15K Donostia</p>	<p>Fly Group 99 SL</p>




Heineken enpresak Jazzaldirako eginiko botilen edizio berezia (beira itxura duten botilak).

7. EKIMEN AZPIMARRAGARRIAK

HONDAKINAK

Neurria	Ekitaldia	Erakundea
<p>Amaierako ekitaldian Zurriolako karpan eskaini zen <i>piknikean</i>, material jasagarriak erabili eta hondakinak murrizteko saioak egin ziren, zerbitzua kontratatzekeo pleguetan jasota zegoen moduan.</p> <p>Erabiltzen diren lona guztiak birziklatuak dira, hirian aurretik erabili diren lonak eta banderolak (2016ko kultur hiriburutzan erabilitakoak, adibidez).</p> <p><i>Food trucks</i>-etan, edalontzi konpostagarriak erabiltzen dira.</p>	<p>EMUSIK Zurriolako Amaiera Ekitaldia</p> <p>Olatu Talka</p> <p>San Tomas Eguna</p>	<p>Donostiako Musika eta Dantza Eskola</p> <p>Donostia Kultura</p> <p>Donostia Kultura</p>
<p>Kontuan izanik egun honetan sortzen den hondakin kantitate handia, duela urte batzuetatik hona saioak egiten ari dira hondakinak murrizteko eta herritarrak sentsibilizatzeko.</p> <p>Adibidez, trikiti talde bat hiriko kaleetan barrena ibiltzen da, eta beirak jasotzen dituen pertsona batek jarraitzen dio. Helburua da herritarren arreta piztea, botilak dagokion edukiontzira bota behar dituztela ohar daitezen.</p> <p>Bereziki aipatzekoa da ere gero eta gehiago zabaltzen ari dela berrerabil daitezkeen edalontzien erabilera. 1 €-gatik eskuratzen dira eta festa amaitzean itzuli daitezke.</p>	<p>Uda gau bateko ametsa</p>	<p>Tanttaka Teatroa</p>
<p>Hondakinak leku jakin batzuetan sortu ziren (antzezlanaren lehen zatiko "afarian" eta amaierako kopan), eta antolatzaileak arduratu ziren haien bilketaz eta kudeaketaz. Horri esker, sortutako hondakin guztiak kontrolpean bildu eta birziklapenera bideratu ziren ondoren.</p>		

"Uda gau bateko ametsa" antzezlaneko "afarian" erabilitako material berrerabilgarriak eta birziklagarriak.



ENERGIA

Neurria

Ingurumen irizpideak hartu ziren kontuan agertokiak, hesiak, karpak... muntatu eta desmuntatzeko zerbitzuak kontratatzean, baita sonorizazio eta argiztapen zerbitzuak kontratatzean ere.

Musika Hamabostaldiak ingurumen politika bat erabiltzen du (web orrian argitaratuta dago). Politika horren bidez, berotegi efektuko gasak murrizteko konpromisoa du: zikloetako baten karbono azterna kalkulatzen da edizio bakoitza amaitzean. Kalkulu horretatik abiatuta, dagokion emisioen konpentsazioa egiten da.

Ekitaldia

EMUSIK
Zurriolako Amaiera Ekitaldia

Musika Hamabostaldia

Erakundea

Donostiako Musika eta Dantza Eskola

Donostiako Musika Hamabostaldia SA

Otros compromisos ambientales adquiridos por la Quincena Musical:



Registro de huella de carbono, compensación y proyectos de absorción de CO2.
PDF Tamaño: 81KB



Quincena Verde
PDF Tamaño: 112KB



Premio Greener Festival
PDF Tamaño: 47KB

Musika Hamabostaldiak ingurumen arloan hartutako beste konpromiso batzuk:

Musika Hamabostaldiaren Karbono Arrastoa eta emisioen konpentsazioa.